

# Balenciaga Kapelaren dotorezia

10 | B



Balenciaga. Kapelaren dotorezia  
Erakusketa. 2021.10.29–2022.05.08

**B** CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

Museu del Disseny  
de Barcelona





# Balenciaga Kapelaren dotorezia

Erakusketa. 2021.10.29–2022.05.08

Burua estaltzeak eta estalgabetzeak askotariko konnotazioak izan ditu unearen eta tokiaren arabera, kulturak, erlijioak, gizarte-mailak eta genero-rolak markatuta. Cristóbal Balenciagaren garaian, kapela silueta osatzen zuen zatizat hartzen zen eta, horregatik, goi-mailako jantzigintzako etxe gehienetan, halakoak diseinatzeko, sortzeko eta saltzeko sail berezi bat egoten zen. Guztien artean, Balenciagaren kapela eta burukoak ziren desiratuenak.

Cristóbal Balenciaga eta haren laguntzaileak —gehienak emakumeak— egoera horretaz baliatu ziren, goizetik gauera eta oinetatik burura dotorezia, sotiltasuna eta, batzuetan, ausardia iradokiko zuten siluetak eta konbinazioak irudikatzen.

Hegalaren tamainaren eta buruan duten posizioaren arabera, lastoz, feltroz edo larruz egindako pamelak, turbanteak, bonetak edo txapelak aurki ditzakegu, lorez, lumaz edo tulez apainduak. Guztiak bat datoz honetan: burua estaltzeko gizarte-protokoloa betetzen dute eta, aldi berean, silueta nabarmentzen dute.

«Balenciaga. Kapelaren dotorezia» erakusketa Cristóbal Balenciagaren Parisko eta Madrilgo goi-mailako jantzigintzako kapelagintza-etxeko sailetan 1930eko hamarkadaren amaieratik 1968an etxeak itxi arte sortutako kapela eta burukoei soilik eskainitako lehenengo nazioarteko erakusketa da.

Hain zuzen ere, Cristóbal Balenciaga Museoko eta Bartzelonako Museu del Disseny museoko kapela-bildumak hainbat urtez elkarrekin ikertu ondoren jaio da erakusketa, bi erakundeon artean koproduzituta. Cristóbal Balenciaga Museoko Bildumen zuzendari Igor Uria eta Bartzelonako Museu del Disseny museoko ehunen eta jantzien kontserbadore Silvia Ventosa dira komisarioak.

Orain, erakusketa Getariara heldu da, Bartzelonan aurkeztu ondoren, laurogeita zazpi kapelarekin; horietatik hirurogeita hemezortzi, kapelak bakarrik, eta bederatzi, dagokien konjuntorekin batera. Berrogeita hiru Museu del Disseny museoaren bildumakoak dira eta beste berrogeita lau piezak Cristóbal Balenciaga Museoaren bildumakoak.



# Erakusketa

**Cristóbal Balenciagak estilo eta forma oso berezi bat sortu zuen bere kapelen diseinuetarako, forma sinpleen bidez sortutako bolumen findu, estilizatu eta ia abstraktuen bidez; hala, ia eskulturak ziren kapelok.**

Erakusketak diseinatzailearen lanaren berezitasunean sakontzen du, irudimenezko forma berritzaileak, material bikainak, teknika berrien bilaketa eta kapelen artisautzako ekoizpena nabarmenduz. Faktore horiek guztiak batzeak bakar, paregabe eta magnetiko bihurtzen ditu.

«Bere garaian, beharrezkotzat jo zen kapela tipologia bati *Balenciaga Shape* izena ematea; erraboi itxurako kapela handiak ziren eta misterio-kutsu bat sortzen zuten —aurpegian egiten zuten itzal finagatik—, baita nolabaiteko dotoretasuna ere, erabiltzen ziren organdizko, tulezko eta parpailazko beloei esker», nabarmendu du Igor Uriak.

Cristóbal Balenciagak oso ondo ezagutzen zituen herri-buruko historikoak; eguneratu eta modan jarri zituen, eta beti esperimentatzen zuen, modelo berriak egiteko. Era berean, askotariko kulturetako kapelak aztertu zituen eta modernotasuna kontuan hartuta berrinterpretatu zituen. Koloreen harmoniarekin eta kontrastearekin ere jolastu zen, inpaktu bisual sakona sortzeko.

Silvia Ventosak adierazi duenez: «Cristóbal Balenciagak kapela historiko asko, mediterraneoko nekazarien kulturetako kapelak, euskal herri kulturako berezko txapelak eta arrantzale-txanoak eta abar gordetzen zituen bere bilduma pribatuan. Jostunak kapela mota horiek sortu zituen eta kutsu garaikidea eman zien».

Erakusketak funtsezko alderdi batean jartzen du arreta, lanbidean eta *modiste* direlakoetan —kapelagileei hala deitzen zieten—, Balenciagaren diseinuari eta sorkuntzei forma ematen zien mundu femeninoaren garrantzia azpimarratzeko: Parisko eta Madrilgo sailen zuzendariak emakumeak ziren, baita kapelagileak eta saltzaileak ere.

Balenciagan, burukoen diseinatzaileak Wladzio d'Attainville (1941etik 1948an hil zen arte), Janine Seignon, Hélène Morny eta Mme. Ginette izan ziren. Madrilen, EISA etxearentzat María Ozcarizek egiten zuen lan kapelagintzako arduradun gisa. Horiek guztiak, saltzaileekin batera, funtsezkoak izan ziren Cristóbal Balenciagaren printzipioak bezeroengana helarazteko.

Gaurkotasuneko ikuspegi batetik, erakusketak agerian jartzen du osagarri hori oso garrantzitsua zela garaiko testuinguru sozial eta kulturalen nabarmentzeko.

Hasiera-hasieratik, goi-mailako jantzigintza luxuaren, eskusibotasunaren, berezitasunaren eta dotoretasunaren adierazpen gorenaren izan da, eta bereziki ardatsu izan da emakumezko elite dirudunen inguruan. Goi-mailako jantzigintzako bezeroak luxuzko mundu dotore batean bizi dira eta edozein gizarte-ekitaldiren aitzakiaz ugaritzen dituzte

beren arropak. Etiketa-kodeak ezagutzea funtsezkoa da klub elitista horren parte izateko.

«Txetxia, *beata*, onddo-txapela eta *pillboxa* dira damen silueta osatzen zuten kapela motetako batzuk; haien helburua inguruko arreta piztea eta damen begirada dotorea nabarmentzea zen. Guztietan dotoreenak Balenciagaren burukoak zeramatzenak ziren», azaldu du Uriak.

Erakusketaren katalogoan komisarioen zenbait artikulu eta Philip Treacy kapela-sortzaile ezagunaren kolaborazio berezi bat aurki daitezke. Argitalpena katalanez, gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez dago.

«Kapela on bat sinbolo positibo bat da. Kapela on bat osagarririk xarmagarriena da. Behatzen dutenak hunkitzen ditu eta haren jabe izateko nahi eutsiezina pizten du. Nahiz eta irudiok beste mundu batekoak diruditen, lotura estua sortzen da luxua maite duen kontsumitzailearen eta haren kapelaren artean. Mezua sinplea eta biribila da: kapela on bat bere garaiaz harago bizi da». Philip Tracey.

© Cristóbal Balenciaga Museoa/Vicente Paredes





# Eremuak

Erakusketa sei ataletan dago banatuta, eta atalok Balenciagaren kapelagintza-sailetan hiru hamarkada baino gehiagoan (1937-1968) egindako kapela eta burukoen erabilera, tipologiak, sorkuntza-prozesua eta esanahia azpimarratzen dute.

## I. Sarrera

Burukoa funtsezko janzte-pieza bat da, zeinak bolumenak orekatu eta pertsonaren silueta eta irudia osatzen dituen. Gainera, IDENTITATEA, DOTORETASUN HIERARKIKOA ETA GIZARTE-ESTATUSA NABARMENTZEN DITU. Antzinasunetik, hala babes-elementu bat nola autoritate-sinbolo bat izan da, kapelaren tamainari edo berorren apaingarrien bitxitasunari esker. XVII. mendetik aurrera, latineko *caput* hitzetik (buru) datorren *chapeau* terminoa erabiltzen hasi ziren, landutako buruko batez hitz egiteko. XIX. mende amaieran, erosteko eta kontsumitzeko ohitura berriekin batera, emakumeen kapelak gizarte-maila guztietan txertatu ziren. Goi-mailako jantzigintzaren munduan, XX. mendearen erdialdean, burukoek glamourra ematen zuten, baita ausardia ukitu bat ere. Kapelak egunero erabiltzeko elementu bat izan ziren 1960ko hamarkadara arte, gizarte- eta genero-berdintasunaren aldeko gizarte-mugimenduen testuinguruan haien erabilerak behera egin baitzuen; hain zuzen ere, goi-mailarekin eta hierarkia patriarkal baten arabera antolatutako gizartearekin lotzen ziren sinbolikoki. Gaur egun, kapelak moda-desfileetan eta jaietan eta gizarte-zeremonietan agertzen dira, unean-unean.

### MODISTE DIRELAKOEK MODAREN MUNDUAN ZUTEN ROLA

XVIII. mendearen amaieran, *modiste* direlakoek kapelagintzako lantegiak sortu zituzten; luxuzko artisautza zen. *Modiste* horien rola funtsezkoa da modaren munduan; izan ere, lanbideak eskatzen dituen trebetasun teknikoak konbinatzen ditu: batetik, sormena, askotariko material bikainak erabiltzen baitituzte —belusa, feltroa, lastoa, zeta, zurta, lumak, loreak eta brodatuak...—, eta, bestetik, nolabaiteko magia, objektu paregabe bat sortzeko. *Modiste* direlakoek beren kapelak diseinatu eta markatzen dituzte, desfileak egin eta beren modeloak saltzen dituzte. Moda-sortzaile batzuek beren soinekoekin bat datozen kapelak ere sortzen dituzte.

Cristóbal Balenciagak dotoreziarako, fintasunerako eta *total look* delakoaren sormenerako funtsezkoak ziren kapela batzuk diseinatu zituen. Libreki esperimentatu zuen estilo eta forma oso berezi batetik abiatuta; hainbesteraingo ezen kapela mota bati *Balenciaga Shape* deitu baitzitzaion.



© Cristóbal Balenciaga Museoa / Vicente Paredes

## XX. MENDEAREN ERDIALDEKO BURUKO MOTAK

Goi-mailako jantzigintzako soinekoen kasuan bezala, modako kapelak janzteko, eguneroko, zeremonia jakin batzuetako eta urte-sasoi bakoitzeko janzkeren formaltasunak ezagutu behar dira.

Erakusketan, Parisko eta Madrilgo Balenciaga Etxeko kapelagintza-sailetan egin ziren burukoak erakusten dira, kontuan hartuta nolako garrantzia zuen osagarri horrek garaiko gizarte- eta kultura-testuinguruan.

Eremu horretan, xx. mende erdialdeko bost buruko mota erakusten dira: *pillbox* kapela, txapela, kasketa, pamela eta turbantea, kolore argikoak, formak azpimarratzeko.

## II. Prestigioa

Oso zaila zen Balenciaga Etxera sartzea, modako aldizkariak eta antzeko hedabide espezializatuek eman ohi zioten prestigio handia zela-eta. Etxeko aretoen estiloa garbia eta neutroa zen, modeloek ematen zuten inpresioa ez nahasteko, eta bilduma erosle gutxi batzuen aurrean aurkezten zen, saltzaile batek harrera egin ondoren. Etxearen bezero baten gomendioz sartzen ziren bezero berriak, eta hasieratik esleitzen zitzairen beren erabakietan aholkatuko zien saltzaile bat.

1937an Parisko Balenciaga Etxea zabaldu aurretik, ez dugu ezagutzen kapelagintzako sail berezirik zegoenik Donostian (1927), Madrilen (1933) eta Bartzelonan (1935) zabalduzako hiru EISA aretoetan. Horregatik, erakusketa honek 1930eko hamarkada amaieratik 1968an etxeak itxi ziren arteko kapelen sorkuntza erakusten du.

### «BALENCIAGAK»

Egunkarietako sektore batzuentzat, etxearen doktrinarekin identifikatuta sentitzen ziren maisuaren bezeroak «Balenciagak» ziren. Etxearen estilo denboragabea beti garaiko moda baino urte batzuk aurrerago zihoan, eta bezeroen estiloa eta dotoretasuna nabarmentzen zituzten xehetasun sumaezinak azpimarratzen zituen; hala, haietan autoestimua, erosotasuna eta dotorezia sortzen zituen. Bezeroek ebakera garbi eta gauzatze bikaineko sorkuntza dotoreak maite zituzten, eta Balenciaga inguratzen zuen misterio kutsu horrez busti nahi zuten, gizartean nabarmentzeko. Etxearen bezero elitistek, sarritan, *total look* delakoa erosten zuten, modeloa buruko batekin osatzeko eskatzen baitzuten. Baina esan daiteke emakume gutxi zeudela «Balentziagaki jantzita».

MODES, BALENCIAGA ETXEAREN KAPELAGINTZA-SAILA PARISKO ETA MADRILGO TAILERRETAN

Balenciagan, Cristóbal Balenciaga bera eta Wladzio d'Attainville izan ziren burukoen diseinatzaileak; azken horrek eginkizun hori izan zuen 1941etik 1948an hil zen arte, eta egunkarietara harremanez eta komunikazioaz ere arduratzen zen.

Funtsezko eginkizuna zuen *modiste* delakoak, hots, kapelagileak. 1940ko hamarkadaz geroztik, Parisen bi lantegi zeuden, Janine Seignonen, Hélène Mornyren eta Mme. Ginetteren zuzendaritzapean. Mme. Belita Dauvilliers saltzailea ezinbestekoa zen diseinatzailearen ideiak erosleari egokiro helarazteko; izan ere, kapelaren jarrera egokia eta itxuraz sumaezinak iruditu arren Balenciagaren bezero gisa nabarmentzeko ezinbestekoak ziren beste xehetasun batzuk azaltzen zizkion. Madrilen, EISA etxearentzat María Ozcarizek egiten zuen lan kapelagintzako arduradun gisa. Hala haren itxura ederra nola aurrez etxeko maniki gisa egin zuen lana erabakigarriak ziren eginkizun horretarako.

### III. Tradizioa

Balenciaga bere buruarekiko koherentea eta leiala izan zen; horregatik, esan daiteke haren lanean ezer ez dela azalekoa eta ez dagoela bigarren mailako xehetasunik. Oroipen bat beti da haren sormenezko unibertsoerako gako bat.

Cristóbal Balenciagak askotariko iturriak erabili zituen bere burukoak sortzeko. Ondo ezagutzen zituen erlijio-jantziak; haietan oinarrituta interpretatu zituen mojen burukoak eta apaizen hegal handiko kapela lauak. Zezenen mundutik eta majoen inguruetik bolak, sareak eta burukoak, hiru adarreko kapelak eta monterak hartu zituen, toreatzailearen mototsa gogorarazten duen bolumen batekin atzealdean.

Diseinatzaileak Espainiako herri-jantzien berezko materialak eta teknikak erabili zituen, esaterako, atxabitxia, makramea eta parpaila, eta bizitza berri bat eman zien.



© Cristóbal Balenciaga Museoa/Vicente Paredes

## IV. Oparotasuna

Balenciagaren kapelek bereizgarri dute material, kolore eta apaingarrien erabilera berritzaile eta ausart bat, bai eta obren akaberan hauteman daitekeen artisautzako teknika izugarri perfektionista bat ere. Horrekin batera, egileak ezin hobeto ezagutzen zuen zer buruko egokitzen zitzaion hobekien aurpegi eta aurpegiera jakin bati, bai eta bezero bakoitzaren anatomiar ere.

Kolorea materialekin konbinatu behar da, bata bestearen ezaugarriak nabarmendu baititzake, baita ñabartu edo harmonizatu ere. Argiak eragina du materialaren eta kolorearen arteko konbinazioan, eta islak sortzen ditu satin distiratsuan, brodatuetan eta errafia batzuetan; gardentasunak lasto fin, tul eta belo batzuetan; argia xurgatzen du, belusetan, zisne-lumatxan eta feltro batzuetan... Sarritan, kolorearen oparotasuna haren intentsitateagatik da, baina baita kolore-faltagatik ere, zuria erabiltzen denean, esaterako; aldiz, muturreko fintasuna eta sotiltasuna irudikatzeko pastel-koloreak erabiltzen dira, berde eta arrosa argiak, adibidez.

### MATERIALAK ETA TEKNIKAK

Kapela-lantegietan, material sinpleak eta ohikoak erabiltzen ziren, esaterako, artilea eta lastoa; azken horrek mota guztietako landare-zuntzak hartzen ditu barne, baita bananondo-hostoak eta errafia-zintak ere. Belusaren, satinaren eta zetazko organdiaren moduko oihal bikainak lihoarekin eta kotoiarekin konbinatzen ziren, tenkatuta edo tolestuta, txanoak, zapiak, kasketak edo turbanteak egiteko.

Apaingarririk eskusiboenak harribitxiz edo hegazti-lumaz eginak izaten ziren; arruntenak oilarren lumak ziren, baina ostruka-lumak eta zisne-lumatxak ere erabiltzen ziren. Judith Barbierrek zetazko loreak egiten zituen –arrosak, krabelinak eta kameliak, esaterako–, oro har udako kapelak apaintzeko; neguko kapela batzuk, berriz, lumaz estaltzen ziren, erabat. Lumok kiribilduak, korapilatuak, banakakoak edo marabu- edo zisne-lumaz egindako bolak izan zitezkeen.

Kapelak nabarmentzeko apaingarriek garai bakoitzeko moda markatzen dute. Horri esker *plumassier* eta *fleuriste* izeneko lanbide dotore eta finak sortu ziren. Industria handi horrek hornitzen zituen jantzigintzako eta modako etxeak. Goi-mailako jantzigintzari esker, artisauok beren lekua finkatu zuten, 1930eko hamarkadako lore artifizialen eskari handiagatik eta 1950eko eta 1960ko hamarkadetan burukoetan ezarri ziren askotariko lumak zirela eta. Hala goi-mailako jantzigintzako nola kapelagintzako *petite mains* direlakoek muturreko trebetasunaz, sentikortasunaz, zehaztasunaz eta arretaz egindako joskintzako eta dekorazioko lan finen garrantzia azpimarratzen dute.

## V. Dotorezia

Manikiek goi-mailako jantzigintzako bezero baten dotoretasun-erreferentetzat jotzen zena irudikatzen zuten. Jarrera zuzena zuten, begirada urrunean jartzen zuten, horizontean, eta aretoa bizkor gurutzatzen zuten, jantzita zuten modeloen zenbakia eskuan zeramaten bitartean. Burukoak jarrera hori azpimarratzen du, apain-orrazi eta orratzen bidez zehatz kokatuta dagoelako. Hein batean, arrakastatsua zen bezeroek modeloen neurriak eta dotorezia balioesten zituztelako, eta

beren burua buruko horrekin ikusten zutelako beren gizarte-bizitzako ekitaldi ugarietako batean.

Kapela bat sortu eta aukeratzeko orduan, garrantzitsua da haren formaren, jantziaren eta aurpegiaren arteko harmonia kontuan hartzea; halaber, aintzat hartu behar dira koloreak eta horien distira, aurpegiari, ileari eta larruazalaren tonuari dagokienez. Hegalaren eta koroaren arteko orekak, baita jantziarekiko dutenak ere, dotorezia indartzen du, eta gauza bera gertatzen da burukoaren kokapenak begien eta sorbalden lerroarekiko duen simetriarekin.

Burukoak eragin oso nabarmena du berori daramanak proiektatzen duen irudi osoan. Balenciagaren kapelak aurkezteko, manikiek ilea garondoan motots batean bilduta izaten dute; hala, kapela aureola moduan agertzen da, aurpegia nabarmentzeko, eta misterio- eta dotoretasun-kutsu bat emateko.

Kapela mota bakoitzak, garaiaren arabera, jarrera jakin bat eskatzen du buruan: alderatua, zuzena, garondoan, kopetaren kontra jarria, etab. Kapela-forma bakoitzak aurpegiarekin harmonian egon behar du. Buru gainean, burukoak, *canotiers* direlakoak eta pamelak jartzen dira.

Buruan estututa, bonetak, *cloche* kapelak, kasketak, turbanteak eta txanoak jartzen dira, zeinek ilea guztiz edo partzialki estaltzen duten. Motots-estalkiek ilea jasotzen dute eta koroa eta diademek ilea bildu eta apaintzen dute. Burukoak, beloak, mantelinak eta buruko zapiak izurdunak izaten dira. Hegal zabal edo estuko kapelak buru gainean jarri eta estutu egin dira, aldi berean.

## VI. Gutxiago gehiago da

Balenciagaren modeloek sofistikazioa eta forma-sinpletasuna dute bereizgarri. Forma sinpleen bidez sortutako bolumen findu eta estilizatu ia abstraktuak eskulturatzat jo daitezke, eta batzuetan materialen ezaugarrien bidez nabarmentzen dira. Burukoek silueta modu harmonikoan osatzen dute, eta, sarritan, apaingarriak saihestuz, sinpletasunaren dotorezia azpimarratzen da.



© Cristóbal Balenciaga Museoa/Vicente Paredes

# Bildumak



MUSEU DEL DISSENY DE BARCELONA

Bartzelonako Museu del Dissenyk Balenciagaren kapela eta soinekoen bilduma adierazgarria dauka. Kapelen bildumak ehun eta hirurogeita hamahiru ale ditu, batzuk Balenciaga Parisetik ekarriak, eta beste batzuk, berriz, Eisatik, Donostia, Madril eta Bartzelonako etxeetarako erabiltzen zuen markatik. Horieta 23ren jatorria Ramon Vilà de la Rivak, 1976an, orduan Museu d'Indumentària-Col·lecció Rocamora zenari egindako dohaintza da. Vilà de la Rivak bultzatu zuen «El mundo de Balenciaga» (Balenciagaren mundua) erakusketa, 1973an New Yorkeko Metropolitan Museum of Art-en eta 1974an Madrilan egin zena. Ia erdiak Anna M. Torra de Giliren dohaintzatik datoz, eta gainerakoak beste dohaintza partikular batzuetatik.

Museu del Dissenyren funtsetan, Balenciagaren 170 inguru jantzi-joko eta soinekoen artean, ugariak dira 1950eko hamarkadako soinekoak eta kapelak. Hori ez da oso ohikoa bilduma gehienetan, eta, zalantzarik gabe, badu garrantzirik. Izan ere, Balenciagak hamarkada hartan egin zituen berrikuntza gehien, baita zenbait soineko-tipologia sortu ere.



CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

Cristóbal Balenciaga Museoa 2011ko ekainaren 7an inauguratu zen, eta Getarian dago, jostunaren jaioterrian. Hor izan zuen bizilekua trebatzen eta heldutasun profesionalera iristen emandako urteetan, modaren munduari egin zion ekarpena ulertzeko hain funtsezkoa den sasoian.

Museoak bilduma aparta du gordeta, Balenciagaren bizitza eta obra, modaren eta diseinuaren historian izandako garrantzia eta beraren ondarearen garaikidetasuna ezagutarazteko xedez. Bilduma zabala da: 4.500 ale baino gehiago, jantzien, osagarrien eta dokumentuen artean; eta kopurua handituz doa, gordailuei eta dohaintzei esker. Bestalde, eremu handia hartzen du, bai formalki bai kronologikoki; izan ere, bertan daude kontserbatu diren jostunaren sorkuntzarik goiztiarrenak, baita bere etxeak itxi eta 1972an hil arteko erretiro aktiboan egin zituen azkenekoak ere. Hori dela-eta, hau da nazioartean dauden bildumarik oso, koherente eta interesgarrietako bat.

Kapela-bildumak 375 erreferentzia ditu, eta nabarmentzekoak dira haren kalitatea eta aniztasuna. Kapelak eta burukoak daude bilduta bertan, 1940 eta 1968 artean Espainiako eta Frantziako etxeetan ekoitziak. Estreinako aldiz, bildumako elementuak berezko izaera duten sorkuntza-objektu gisa aztertuak dira, eta erakusketa-diskurtso propio batean integratzen dira.

ZURIÑE ABASOLO IZARRA  
Komunikazio arduraduna

zurine.abasolo@fbalenciaga.com  
T +34 943 004 777  
M +34 647 410 775

## CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

Aldamar Parkea 6  
20808 Getaria - Gipuzkoa - España  
T 943 008 840

info@crislobalenciagamuseoa.com

www.crislobalenciagamuseoa.com



Biarritz — 71 km

Bilbao — 81 km

Donostia / San Sebastián — 25 km

Iruña-Pamplona — 97 km

Vitoria-Gasteiz — 83 km

GPS

43° 18' 6.92" N

2° 12' 18.77" W

